

Sinn Fein-eko Padraig O Maolchraoibhe

«Hegoaldean baino gehiago erabiltzen da gaelikoa Ipar Irlandan»



Gaelikoa hirietatik indartu eta hedatuko dela ziur dago Padraig, eta ez oraingo ghetto atzeratuetatik.

Sinn Fein alderdiko zinegotzia dugu Padraig O Maolchraoibhe. Alderdi horretako adar kulturalakoa. Gaelikoz, ingelesez, frantsesez eta espainolez primeran egiten duen gizona. Donostian hiru urtez bizi izandakoa eta euskaraz ere hemengo batzuk baino gehiago dena. Irakaslea. Traje eta korbataz zeren eta "pentsatzen dute terroristok gaizki jantzita joan behar dugula".

ARGIA.— Euskal Herrian kultur mugimenduan gabiltzanok Irlandako egoeraz ideia gutxi gora beherako bat badugu: maila politiko eta militarrean

errepublikanismoa indartsu dabilela, baina kultur mailan, eta hizkuntzarenean zehazkiago, askoz okerrago dagoela.

PADRAIG O MAOLCHRAOIBHE.— Ezer baino lehen hizkuntza egoera ikusi beharko genuke. Pentsatu behar duzue euskara, bere 600.000 hiztunekin, gurea baino askoz sanago dagoela. Irlandan «Gueltacht» deitzen den eskualdeak 75.000 biztanle dituela dio gobernuak, Mendebaldeko itsas bazterrean. Gure kalkuluetan 35.000 bat irlandar-hiztun izango dira Gueltacht horretan.

Bestalde, Hego Irlandan hizkuntza irakatsi da eskoletan, asignatura gisa eta milioi bat biztanlek deklaratu zuten azken zentsoan irlandesez badakitela. Baina lehenik autoestimazio bat da neurri handi batean, eta bigarrenik jakin arren ere ez dute ia erabiltzen. Hizkuntza ikastetxetik bititza normalera eramateko medioak falta bait dira.

ARGIA.— **Telebista izango da?**
P.M.— Bai, baina Hego Irlandan telebistan, esate baterako, ez da sartzen irlandesa. Gobernuak lehen momentu batean zera esan zuen, irlandesa dela lehen hizkuntza nazionala Hegoaldean nolabaiteko askatasun lortu ondoan. Baina gero, eskolek sartu zuten arren, ez zuten inolako piegiturarik sortu irlandesa hortik zuten zedin.

Bi telebista kate ditugu, eta Hegoaldean bien artean ordubete osatzen dute gaelikoz. Aparte bost minuteru egunero, berriekin: jartzen da tipo



Irlandako «ikastolak» eta helduen gaelikotzea oso prozesu berriak dira, baina zu: pertzen ari direnak.

aurrean eta hitz egiten du. Irratietan, asteen 150 ordu eskaintzen badira, irlandesez 15etik ez da pasako. Mendebaldeko kostan bada «Gueltachta» izeneko irrati bat, bertarako bakarrik, eta egunean 6 ordu emango dituzte; baina hor ere berri oso marjinalak: nor hil den halako herritan, beste hartan kartetan nor irabazi duen... eta ez da Herri osora iristen.

A.— Ez gara sartuko gure Euskadi Irrati «gueltachta»rekin gonbarazio errazegiak egitera. Baina Hegoaldean gauzak hola badira, Iparraldean ez dira gozoagoak izanen.

P.M.— Ipar Irlandan, telebista ingeles independenteak egin berria du kalkuloa eta irlandesez ongi mintzatzen duten 20.000 biztanle atera zaiz-

kio. Guk zerbait gehixeago kalkulatuak genituen, 30.000, eta zerbait daitenak erantsiz gero 60.000 milataraino iritsi gintezkeela uste dut. Hori milioi t'erdiko populazioaren barruan, horietatik katolikoak, eta nazionalistak beraz, 600.000 garel. Esan dezagun nazionalisten artean ehuneko 10 batek zerbait badakiela gaelikoz, eta 3tik 5a bitarteko kopuru batek arunt ongi dakiela.

Baina gero errealitatean Hegoaldekoak baino askoz gehiago mintzo dira gaelikoz Iparraldekoak. Belfasten irlandesez dakienak, normalki hitzegin egiten du. Asteburu bat lasai pasako zenukete Dublinen irlandesez hitz bakar bat entzun gabe, halako taberna edo club oso ezagun batera joaten ez

bazarete. Belfasteko mendebaldean, aldiz, ez dut uste asteburu bat batzuei eta besteei gure hizkuntza entzun gabe.

Ipar Irlandan gaelikoa hizkuntza atzerritar moduan irakasten da bigarren mailako eskoletan, frantsesa edo espainola bezala. Gero, nahi duten haurrek uda ikastaroak egiten dituzte Gueltacht-en, baina azken finean ikasten dutenak minoria bat dira. Lehen mailako eskoletan oso gutxi ematen da.

A.— Ikastolen antzeko eskola batzuk ere badituzue...

P.M.— Esan behar da 1971ean zabaldu genuela lehendabiziko «ikastola», nolabait deitzeko, Belfasten. Hutsik irlandesez, eta 9 haur baino ez genuela, irakasle batekin. Bost urteren buruan bi irakasle eta 35 haur genituen. Baina hamar urte ondoren 135 haur eta behar ziren irakasleak genituen. Azkenean, Estatuak onartu zuen eskari bat zegoela eta subentzio bat eman zuen. Horretarako ere une egoki bat aukeratu zuten ingelesek: subentzioa eman zioten protestanteak eta katolikoak biltzen dituen eskola burges bati —badakizue, gure arazoa erlijiozkoa denaren mitoa gustatzen zaie, katoliko eta protestanteek elkarren arteko harremanak goxatuko balituzte guztiok ingelesekin oso zoriontsu biziko ginatkeela— eta horiei egindako mesedearen kontrapizua moduan eman ziguten guri ere.

Gaur egun 200 umetik gora eta 9 irakasle ditugu, bost ama ikastola ere bai. Hauetan 100 haur baditugu. Ikusten duzunez, oinarria zabaltzen ari gara. Epe laburrera lehen mailako beste ikastola bat ireki beharrean izanen gara, Belfasten, eta laster bigarren mailako bat ere bai. Derryn bi ama ikastola ditugu, eta gero eskola ingeles batzuetan ere sartu dugu gure mintzaira. Batzuetan lehen kurtsoak hutsik gaelikoz ematen dira. Hala ere haur guztiak dira elebidun; guraso askok ez dakite irlandesez. Hasieran bai, haur guztien gurasoak mintzo ziren irlandesez etxean, baina gero zabaldu garenean gehienek ez dakite.

Hala eta guztiz ere, esan dezakegu Belfasteko eskola guztien artean gurea da erresultaturik onenak lortzen dituen. Behar bada besteen aldean gurasoek ere esfortzu handiagoa egin behar izan dutelako-edo.

A.— Ba al dago motibazio berezirik gaelikoaren aldeko jarrera honetan?

P.M.— Bide honetan asko lagundu



Hizkuntzak abertzaletasuna sendotu egiten du, eta nazionalismoak bakarrik salbatu dezake hizkuntza.

digu kontzientzia nazionalistak, borrokaekin hizkuntzaren kontzientzia handiagoa hartzeak, nahiz eta Euskadikoaren heinera ez iritsi. Espetxeetan, adibidez, gose greba baino lehen «protesta zikina» deitu zena egin zen: ez ziren garbitzen, dena zerrikeriz betea... Eta espetxeetan errepresioa hain basatia zen garai haietan ez zuten ezer; baina irlandesa ikasi zuten, libururik gabe, paperik gabe, ezer gabe. Zekite nek irlandesez egiten zieten oihu beste presoei, eta hala ikasi zuten.

Ongi ikasi gainera. Bobby Sands-ek gartzelan ikasi zuen, eta gero irakaslea zen. Idatzi ere egiten zuen, komuneko paperean, gero ezkutuan ateratzeko. Gertakizun horiek ere irlandesarenganako zaletasun berriarekin lotuak daude. Horregatik Sinn Feineko kul-

tur sailak klaseak antolatzen ditu, nahiz eta AEKk egiten duenaren aldean deus gutti den.

Iparraldean 60 bat klase daukagu, horietatik 40 Belfasten. Astean ordu t'erdi ematen da, eta ikasten ari direnetako batzuk hizkuntza menderatzea erdiesten dute, bi klasetara joanaz, gero Gueltacht-ean ikastaro bat eginaz eta abar. Baina egia esan, nahiko argi dakigu nazio kontzientzia bultzatzen dugun bezala epe laburrera ezingo dugula Herria gaelikotu.

A.— Gure erredakzioan gaelikoz idatzitako egunkari baten berri ere izan dugu...

P.M.— Gauza kurioso eta interesgarri bat izan da azken urteotan egin duguna: urte betez egunkari bat argitaratu dugu, normalki lau orrialde-

koa, eta noizean behin zortzirekin. Baina orain ez da behar hainako normaltasunez argitaratzen. Egiten zuten mutilek, izan ere, eta gutxi ziren, gobernuaren subentzioetatik ateratzen zituzten sosa: zuk lanpostu bat egiten baduzu, gobernuak lanpostu horren soldataren zati bat subentzionatzen dizu. Sistema horrekin ari ziren bospasei gazte lanean egunkari hori egiten. Baina mugimendu errepublikanoaren parte direla konturatu dira, gainera guk utzitako lokaletan ari zirelako, eta gehiago dirurik ez dietela emango esan diete.

Mila ale argitaratzen zituen egunero, gauza ttikia, ikusten duzuen bezala, baina hori izan da edozein hizkuntza zeltikotan sekula izan den egunkari bakarra. Hala ere, ez dakit Irlandara itzultzen naizenean oraindik martxan jarraituko duen.

A.— Denetara, beraz, zenbat jende ariko da irlandesez ikasten?

P.M.— Nik gure klaseetako xifra eman dizkizut, baina gero badira udalek antolatutakoak, kultur taldeetakoak. «Cumman na Gaelic»ek eraturitakoak... Talde honek garai batean indar handia ezagutu zuen, baina asko apaldu da.

Esan behar da gaeliko klaseak normalki irakasle boluntarioek ematen dituztela. Ehun eskolatatik laurogeitan irakasleek ez dute txakur txiki bat kobratzen. Horretan ere zuengandik ezberdinak gara, beraz.

Zenbat ikasle? Guk klase ditugu. Beste talde guztien artean beste ehun bat dituztela bota dezagun, 150 bat klase. Horietako bakoitzean hamar lagun... Behar bada 1.500 bat ikaslez hitzegin beharko genuke.

A.— Orain dela urte bete zuen Herriitik ibili ziren adiskide batzuek aipatu ziguten ez dakit Derryn edo Belfasten, zuen «ikastolen» ondoan erabat gaelikoz bizi zen auzo txiki bat egin zela.

P.M.— Derryn ez dakit baina Belfasten badago. Oso ttikia da, e? Hamarka etxe dira, kooperatiba moduan eraikiak: lurra erosi zituzten, etxeak eraiki... Denak irlandesez hitz egiten, denak ikasiak, denak «gaelicberriak», je, je. Irlandesez hitz egiten zuten zitaizkien haurrei, eta eskola bat ere eraiki zuten. Beste herriren batean ere badago.

Baina oso txikiak diren arren mesede handia egin dute. Eskola jarri zuten, helduei ere irakasten zuten iluntzean, foko bizi bat ziren auzoan, jendea dirua emateko prest zegoen, nahiz

eta jendea pobrea izan eta haurrak eskolara bidaltzeagatik ordaintzera ohitu gabe egon. Diruarena beti izan da prolema, eta gauzak handituz zihoa-zen bezala azkenean urtean igoyal 70 edo 80 libra bildu behar genituen.

Baina bada gauza inportante bat: hirian sortu direla holako mugimenduak. Ziur nago irlandesa biziko bada, eta zabalduko bada, ez da hedatuko mendebaldeko kostatik, eskualderik atzeratuena delako; aitzitik, hirietatik etorriko da, Belfast eta Dublindik, adibidez.

A. — Euskal Herrian bizi izana zarenez, badakizu euskal kulturari mugimendu politiko guztiek autonomia bat aitortzen diotela. Aldiz, zuek Sinn Feinen kultur adarretik egiten duzue lan asko.

P.M. — Borrokan ari bagara irlandarrak garelako ari gara, eta hizkuntza irlandar egiten gaituen guztiaren zati oso inportantea da. Horregatik bultzatzen dugu kultura, nazio mugimendu bat garelako, eta nazio mugimendu batek behar dituen adar guztien artean kultur saila ere behar dugula uste dugu. Hortik asko lagundu diezaiokoe gainera borroka osoari, jendea ikastera bultzatzeaz gain publizitatea ere egin dezake. Jendeak mugimendu nazionalista errespetatzen badu, guk hizkuntzari ematen diogun babesa inportantea da.

Bestalde, gaelikozale eta gaelikoaren aldeko aktibistak konturatzen direnean badagoela indar bat hizkuntzaren alde saiatzen dena, bere alde jartzen dira, nahiz eta gauza guztietan ados ez egon.

Garrantzia handiagoa eman behar zaio gaelikoari. Bobby Sands eta hauek garrantzia eman ziotenean jendeak garrantzitsu bezala jotzen zuen. Gure alderdiak garrantzia ematen badio jendea arduratu egiten da irlandarrekin. Jendeak gainera ikusi egiten du hizkuntzaren alde egiten dugula eta orduan guri ematen digu botoa, ez bait dago Ipar Irlandan horrelakorik egiten duen beste partidurik.

Dena dela oso gutxi gara mugimenduan barruan hizkuntzaz arduratzen garenak eta eskolak eta ematen ari garenak. Baina gauza bat egiten dugu ondo. Egiten dugun guztia ahalegintzen gara publikatzen, eta seguruenik garrantzitsuagoa da egiten dugun publizitatea ematen ditugun eskolak baino.

Joxe MOLLARRI



Grabagailuan jasotako beste zenbait

“Irlandan, eta Iparraldean ere, egunkari ingelesak dira gehien irakurtzen direnak. Tirada handiko egunkari ingelesak. Esaten da ingelesek asko irakurtzen dutela egunkaria. Ingelesez gehien irakurtzen diren egunkariak ordea bederatzita urtetako pertsona baten mailarako egindakoak dira”.

“Hego Irlandan ikaragarria da neokolonialismo ingelesa. Irlandako telebista da munduan, beste birekin batera, etxean programa gutxien egiten duena. Angloamerikar kultura da nagusi herrian, ekonomia mailan ere ingelesak, eta Europako Ekonomi Elkartearen bidez multinazionalak diren bezalaxe”.

“Sinn Fein da Irlanda osoan hedatzen den partidu bakarra; beste guziek atzera egiten dute mugan. Ahulago gaude Hegoaldean. Nazio zapalkuntza gutxiago ikusten da han”.

“Irlandarrek pentsatzen dute astean ordu t'erdi sartuta gaelikoz ikasten ez badute tontoak direla”.

“Euskal Herrian ikusten dut, orain gobernu eta guzi, ez dela hizkuntzaren alde egin beharreko guztia egiten”.

“1847. urtean, “Gosearen urtea”n, 8 milioi lagun bizi ziren Irlandan. Seguru erdiak baino gehiagok bazekiela irlandesez. Ehundaka urte zeramatzen zapalkuntza egoera jasaten eta gaelikoari eutsi egiten zioten ingelesaren aurrean. Gosearen urte horretan milioi bat lagun hil ziren. Gaur egun jendea ikaratu egiten da Etiopiaz ikusten duenaz baina hura handiagoa izan zen proportzioan. Ondorengo bost urteren buruan beste milioi batek emigratu egin behar izan zuen. Herriaren gogoia erabat suntsitu zen. Nazio eta herri gogoaren krisi bat etorri zen. Gaelikoak ez zuen balio emigratzeko. Gurasoek ez zieten gaelikoz hitzegiten semei emigratzerakoan ingelesez jakin zezaten”.

“Inoiz baino gehiago egiten da irlandaraz mugimendu errepublikanoan. Maila handi batetan gartzelaren eragina da. Gartzela barruan ikasi eta kanpoan erakusten hasi ziren”.